DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2025

ETXEPARE

- Mugikortasunerako dirulaguntzak: AT! Zinema - AT! Literatura (2025)..... 2
- Mugikortasunerako dirulaguntzak: AT! EUSKAL KULTURA (2025)..... 4
- Literatura itzulpenetarako dirulaguntzak: AT! Itzulpenak: Literatura (2025)..... 5
- AT! Mugikortasuna (2025) 6
- 2024ko urritik 2025eko irailera euskara-ikastaroak emateagatik euskal etxeei esleituko zaizkien dirulaguntzetarako deialdia..... 7

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Mugikortasunerako dirulaguntzak: AT! Zinema - AT! Literatura (2025)

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko martxoaren 21ekoa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, 2025ean euskararen eremu geografikotik kanpo zinema- eta literatura-arloko sortzaileak eta eragileak nazioartekotzeko bidaia-poltsak emateko Zuzendaritza Kontseiluak onartutako deialdia argitaratzeko dena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia: https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/04/2501507e.shtml

Ebazpenen jakinarazpena: https://www.euskadi.eus/administrazioaren-iragarkia/zinema-eta-literatura-arloko-sortzaileak-eta-eragileak-nazioarteratzeko-bidaia-poltsak-argitara-ematea_2025/web01-tramite/es/

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ebazpen honen xedea da euskararen eremu geografikotik kanpo zinema eta literaturaren arloko sortzaileak eta eragileak nazioarteratzeko bidaia poltsetarako dirulaguntzak emateko modua arautzea. Zehatzago, honakoak lagundu nahi dira, aipatutako bi arloetan:

Zinema: zinema alorreko eragileei (zuzendari, aktore, ekoizle, gidoigile) nazioarteko zinemaldietako programazio ofizialetan parte hartzeko dirulaguntzak ematea, zinemaldiak bertan beren film luzeren bat aurkezteko edo ordezkatzeko gonbidatu dituenean.

Zinemaldi horiek nazioartekotzat jotzeko ezinbestekoa izango da gutxienez bost herrialdetako lanak programatzea eta webgunea ingelesez izatea.

Salbuespen gisa, film laburrak onartuko dira zinemaldia zerrenda hauetakoa denean: dokumentalak eta bestelakoak.

Zinemaldiak bi ordezkari edo gehiagoren gastuak hartu baditu bere gain, ez da bidaia-poltsarik emango, filma ordezkatutzat joko baita. Erantzukizunpeko adierazpen baten bidez jasoko da hori eskaeran.

Literatura: literatura sektoreko eragileek (idazle, ilustratzaile, itzultzaile eta editore) literatura-alorreko nazioarteko ekitaldietan parte hartzeko dirulaguntzak ematea, horietan libururen bat aurkeztu edo ordezkatu behar dutenean, literatura-sorkuntzaz jardun behar dutenean edo euskal ordezkaritza gisa doazenean.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

*Lortutako emaitzak: 48 eskaeratatik 41 proiektu lagundu ziren diruz. Beraz, estaldura maila % 85ekoa izan da.

*Aurrekontuaren gauzatzea: deialdian 30.000 euroko aurrekontua zegoen, 31.632,80 € diru eskaera egin zuten eskatzaileek eta horietatik 27.100,88 € esleitu ziren.

*Eragina gizartean: Hainbat euskal film eta liburu Euskaditik kanpo aurkeztu ahal izan ziren hainbat jaialdi eta topaketatan, euskal zuzendari eta idazleen aurkezpenekin, eta honek euskara eta euskal kulturari nazioarteko prestigioa eman eta Euskadiren irudi positiboa munduan zabaltzen lagundu zuen.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Aurrekontuaren gauzatzea	%100	%90,34
Diruz lagundutako bidaia-poltsak	20	40

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Mugikortasunerako dirulaguntzak: AT! EUSKAL KULTURA (2025)

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko maiatzaren 22koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita 2025ean euskal kultura sustatzeko eta hedatzeko irabazi-asmorik gabeko jarduerak euskararen eremu geografikotik kanpo garatzeko dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duen deialdia, Zuzendaritza Kontseiluak onartutakoa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia: https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/05/2502231e.shtml
Ebazpena:
https://www.euskadi.eus/administrazioaren-iragarkia/at-kultur-jarduerak-2025-ebazpena/web01-tramite/es/

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da Euskal Kultura sustatzeko eta hedatzeko irabazi-asmorik gabeko jarduera eta proiektuak 2025. urtean zehar euskararen eremu geografikotik kanpo burutzeko dirulaguntzak emateko modua arautzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

*Lortutako emaitzak: 14 proiektu diruz lagundu ziren, baldintzak betetzen zituzten 24 eskaeren artean. Beste 4 eskaerak ez zituzten baldintzak betetzen. Denera, 10 abesbatza eta 4 euskal dantza taldek laguntza jaso zuten nazioarteko jaialdi eta ekitaldietan parte hartu ahal izateko.
*Aurrekontuaren gauzatzea: deialdiaren 50.000 euroko aurrekontua osorik banatu zen.
*Eragina gizartean: irabazi asmorik gabeko hainbat kultur proiektu Euskaditik kanpo gauzatu ahal izan ziren, euskara eta euskal kulturari nazioarteko prestigioa emanez eta Euskadiren irudi positiboa munduan zabalduz.
*Desberdintasunak ezabatzeko neurriak: Genero irizpideak 10 puntu balioa du balorazio irizpideetan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Aurrekontuaren gauzatzea	%100	%100
Diruz lagundutako proiektuak	16	14

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Literatura itzulpenetarako dirulaguntzak: AT! Itzulpenak: Literatura (2025)

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko martxoaren 27koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, 2025ean literatura-itzulpenetarako dirulaguntzak emateko Zuzendaritza Kontseiluak onartutako deialdia argitaratzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia: https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/05/2501884e.shtml
Ebazpena: https://www.euskadi.eus/contenidos/anuncio_tablon/res_3154550/es_def/adjuntos/2025_-Itzul-ebazpena-elebi.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ebazpen honen xedea da 2025ean itzulpen jarduera hauek diruz laguntzeko baldintzak arautzen dituen Zuzendaritza Kontseiluak onartutako deialdia argitaratzea:

a) Jatorriz euskaraz idatzi eta argitaratutako literatura obrak edozein hizkuntzatara itzultzea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatutako idazleek jatorriz gaztelaniaz idatzi eta argitaratutako literatura obrak euskara ez den beste edozein hizkuntzatara itzultzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

- Lortutako emaitzak: Aurkeztutako 19 proiektutatik 17 lagundi ziren diruz. Horietatik 15 euskarazko literatura lanak izan ziren eta 2 gaztelaniazkoak.
- Aurrekontuaren gauzatzea: deialdiak 63.000 euroko zuzkidura zuen eta 53.372,32 € esleitu ziren.
- Eragina gizartean: aipatu euskal literaturako lanak beste hizkuntza batzuetara itzuli eta nazioarteko beste horrenbeste herrialdetan argitaratu ziren, euskara eta euskal kulturari nazioarteko prestigioa emanez eta Euskadiren irudi positiboa munduan zabalduz.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Aurrekontuaren gauzatzea	%100	%84,72
Diruz lagundutako itzulpen-proiektuak	25	17
Laguntza jaso duten euskarazko proiektuak	5/10	15

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

AT! Mugikortasuna (2025)

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko apirilaren 10ekoa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita, 2025ean euskal kultura kanpoan zabaltzeko, arte plastiko eta ikusizkoak, musika, dantza, eta antzerki arloko sortzaileen mugikortasuna sustatzeko dirulaguntzak emateko Zuzendaritza Kontseiluak onartutako deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia: https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/04/2501508e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da euskal kultura 2025. urtean euskararen eremu geografikotik kanpo zabaltzeko, arte plastiko eta ikusizkoak, musika, dantza, eta antzerki arloko sortzaileen mugikortasuna sustatzeko dirulaguntzak ematea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

- Lortutako emaitzak:
*Musikan, 45 proiektu lagundu ziren diruz, guztira, nazioarteko 293 emanaldi barne hartu zituztenak
*Arte plastiko eta ikusizkoetan, 34 proiektu lagundu ziren, nazioarteko 50 ekintza barne hartu zituztenak
*Dantzan, 16 proiektu lagundu ziren, nazioarteko 92 emanaldi barne hartu zituztenak
*Antzerkian, 38 proiektu lagundu ziren, nazioarteko 380 emanaldi barne hartu zituztenak
- Aurrekontuaren gauzatzea: 511.000 euroko aurrekontutik 498.157,24 euro banatu ziren.
- Eragina gizartean: Aurrez aipatu hainbat kultur proiektu Euskaditik kanpo gauzatu ahal izan ziren, euskara eta euskal kulturari nazioarteko prestigioa emanez eta Euskadiren irudi positiboa munduan zabalduz.
- Desberdintasunak ezabatzeko neurriak: Genero irizpideak 10 puntu balioa du balorazio irizpideetan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Aurrekontuaren gauzatzea	%100	%97,49
4 diziplinatan diruz lagundutako proiektuak	160	133

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

2024ko urritik 2025eko irailera euskara-ikastaroak emateagatik euskal etxeei esleituko zaizkien dirulaguntzetarako deialdia

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko irailaren 26koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita 2024ko urritik 2025eko irailera euskara-ikastaroak emateagatik euskal etxeei esleituko zaizkien dirulaguntzetarako deialdia, Zuzendaritza Kontseiluak onartua.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

DEIALDIA: euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/10/2404654e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ebazpen honen helburua da argitaratzea 2024ko urritik 2025eko irailera euskara-ikastaroak emateagatik euskal etxeei esleituko zaizkien dirulaguntzetarako deialdia, Zuzendaritza Kontseiluak onartua.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Aurrekontuaren gauzatzea: deialdiaren 320.000 euroko aurrekontua osorik banatu zen.
2024-2025 ikasturtean euskara ikastaroetan apuntatutako ikasle kopuru totala 1953 pertsonetakoa izan zen. Horietatik, 856 ikasle gizonezkoak eta 1097 emakumezkoak izan ziren.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Aurrekontuaren gauzatzea	%100	%100
Matrikulatutako ikasleak	1500	1953